

EKONOMIA ETA FINANTZAK


AURREKO DENBORALDIAK

Realaren egoera ekonomiko-finantzarioak jasandako iraultza sendotu egin da azken deboraldietan. Zor konkurtsalaren berregituraketa eta gastuak sarrerren azpitik mantentzeko politika ekonomikoak, jokalarien salmentagatik lortutako ezohiko sarrerei batuta, kontuen egoera larria irauli zuten telebista eskubideen banaketa berriaren diru-sarrera goera itzela gertatzekotan zela.

Azken denboraldietan, Klubak Lehen Mailara itzulita kategoriako klasikoen artean kirol estatusa berreskuratu duen honetan, diru kontuetan txuri urdinen antzinako kaudimen ona ere berreskuratu da eta honen eragina ondasunaren hazkunde progresiboan ikusi daiteke. Lehen taldearen soldaten eta egitura kostuen hazkundearen arren, Realak azken zazpi denboraldiak hazkunde bidean itxi ditu, kontabilitate balorazio arloan 52 milioi eurotara iritsita. Inbertsio berriei edota nahi bezain arrakastatsuak izan ez ote daitezkeen denboraldiei aurre egiteko garaian beharrezko suertatu daitezke:

Realaren Ondasun garbia

11-12tik 16-17rainoko denboraldiak



GAUR EGUNGO EGOERA ETA TESTUINGURUA

Aurreko denboraldiaren amaierak beste behin ere ia sei milioi eta erdi euroko emaitza positiboa ekarri du Klubaren kontuentzat. Lehen taldearen soldatak bezain kontu garrantzitsuek igoera nabaria izan badute ere, ohiko diru-sarrerek eta Mediaprorekin izandako epaiketa luzearen Realaren aldeko emaitzak (iragan udazkenean 11.118.000 euroko sarrera suposatu duena) klubaren finantza arloa sendotzen jarraitu dute kirol maila mantentzearen aldeko apustua eta Anoeta Estadioaren eraberritzeari aurre egiteko ezinbestekoa izango dena (aurreko Akziodun Batzarrak 36 milioi euro gordetzea onartu zuen, nahiz eta horietako zati bat hitzarmen berriak errazten dituen babesleen interesen truke lortutakoak ordaindu ahal izango duen). Anoeta Kiroldegiak ontzat emandako eta Udalarekin sinatutako hitzarmen horren arabera, Realaren parte hartzea lanen kostuaren ordainketara eta 2067 arteko estadioaren erabilpenaren kanon edo 'alokairu' luzapenagatik gertatuko da.

Maila negatiboan, abonatu eta sarrerengatiko salmenten beherakada da protagonista, berriro ere. Ia 500.000 eurotan jaitsi dira azken urtean eta beheranzko norantza arduragarrian jarraitzen dute. Ziur Presidenteak akziodunei zuzendutako gutunean aurreratzen duen Plan Estrategiko berriaren barruko esfortzu handienak Anoetara zaletu gehiago nola erakartzeari buruzko proposamenak izango direla.

Aurreko guztiarekin, eta datorren abenduaren 14 Kontseiluak defendatuko duen aurrekontu proposamena ikusita, aurtengo denboraldirako gako batzuk honakoak izan daitezke:

- Aurrekoarekin alderatuta, aurtengo denboraldirako gastuen kopuruak haztea espero bada ere, aurreikusitako sarrerek azken emaitza bi milioikoa izatea espero da.
- Presidenteak iragarritako Plan Estrategikoa indarrean sartuta ere, beste urtebetez abonatu eta Anoetarako sarreren kontzeptuagatik jasoko dena beste %16 jaitsiko dela uste du Kontseiluak.
- Telebista eskubideek diru-sarreraren zerrendan paper nagusia jokatuko dute aurtengoan ere, aurreikusitakoa betetzen bada kontzeptu honengatiko 49,8 milioiak sarrera guztien ia bi heren izango dira.
- Aurreikusten diren gastuen artean, ohikoa den bezala lehen taldearen soldatak nabarmentzen dira. Aurtengoan 40 milioi euro arte iritsiko dira, jokalarien kontratu berritzeak, aurre-denboraldiko jokalaria berrien sinadura eta irteeren artean Joanathasena bakarrik izan dela kontuan hartuta.
- Aurrekontuen barruan ez da aurtengoan egin beharreko Anoetaren erreformarekin erlazionaturiko kopururik ageri, nahiz eta argitaratu diren azken berriek 2017 maiatza aipatzen duten lanen hasiera-data bezala.